

Urtarrilaren 27an
URTEAN ZEHARREKO 3. IGANDEA

Haur Misiolarien Jardunaldia

“Jesusekin Betlemera: hau bai berri ona!”

Agurra

Berri on eta pozbide dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Ongi etorri, senide maiteok, Jaunak igandero eskaintzen digun otordu santura; bere Hitz eta Gorputz-Odol eskainiez osaturikoa. Eukaristi mahaian partaide izateak, fede- eta maitasun lokarritz behin eta berriz Jaunarekin bat egin eta misiolari bihurtzen gaitu. Galileako lurraldean Jesusek hasi zuen misioa bere jarraitzaileoi dagokigun gaur aurrera eramatea bizi garen tokian, Erreinuaren Berri Ona bizitz eta zabalduz. Horixe ospatuko dugu Haur Misiolarien jardunaldi honetan: otoitzean sendo eta diru-bilketan eskuzabal.

Damu-otoitza

Bekatari garelara aitortuz, eska diezaiozun barkamena Jainko errukitsuari konfiantza osoz.

—Jesus Jauna, behartsuei Berri Ona ematera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure Espiritua beti guran indartsu iraunarazten duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, besteen behar larrien aurrean erne bizitzen erakusten diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
zuzendu zeure gogora gure bizi-
fruitu on ugari eman dezagun
zure Seme maitearen izenean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

(Edota: «Herrien ebanjelizatzerako, A», Meza Liburuan 721 or.)

**Jauna, gizon-emakume guztiak salbatzea nahi duzu
eta egia ezagutzera iristea;
begira zein ugaria den uzta,
eta bidali langileak uzta hori biltzera,
zure Berri Ona denek entzun dezaten
eta zure herriak, biziaren hitzak bildurik
eta sakramentuen indarrak eutsirik,
aurrera egin dezan salbamen- eta maitasun-bidean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Erbestean igarotako garai luzearen ondoren, Israel herria berriro ere bere sustraietara itzuli zen. Jainkoaren borondatea -Liburu santuan azaldua- izan zen herriaren oinarria. Gaur ere badugu, Jesusen erara, Ebanjelioan errotu eta Jainkoaren nahia betetzeko beharra. Baita Bere indarra ere.

Lehenengo irakurra (Ne 8, 2-4a. 5-6. 8-10)

Nehemiasen liburutik

Egun haietan, zazpigarren hilaren lehenbiziko egunean, Esdras apaizak ekarri zuen Legearen liburua, gizon eta emakume eta ezaguera zuten guztien batzarraren aurrera. Eta ur atearen aurreko enparantzan, goizetik eguerdiraino irakurtzen ari zitzaien, gizon eta emakume eta ezaguera zuten guztiei; eta herri osoa erne zegokion Lege liburuari.

Esdras idazlaria, hartarako egina zeukan zurezko oholtoa batean zegoen zutik. Esdrasek herri osoaren aurrean liburua zabaldu zuen, guztiek ikusten zutela, denak baino gorago bait zegoen bera, eta liburua zabaltzarekin batera, herri osoa zutitu zen. Gero Esdrasek Jaunaren, Jaungoiko handiaren, goralpena esan zuen, eta herri osoak, eskuak jatorik, erantzun: «Amen, amen»; eta makurtu ziren, eta ahuspez Jaungoikoa gurtu zuten.

Lebitarrek Jaungoikoaren Legea argi eta garbi irakurtzen zuten, irakurri ahala azalduz, uler zezaten.

Nehemias agintari nagusiak, Esdras apaiz idazlariak, eta herriari erakusten zioten lebitarrek, honela esan zioten herri osoari: «Gaurko eguna, Jaunari, gure Jaungoikoari, eskainia dugu; utz negar-malkoak» (herri osoa, Legearen hitzak entzutean, negarrez bait zegoen).

Eta esan zieten ere: «Zoazte; jan haragi guria, eta edan ardo gozoa, eta bidali jatekoak, berentzat ezer prestatu ez dutenei; gaurko eguna Jaunari, gure Jaungoikoari, eskainia bait dago. Ez atsekabetu, Jaunaren poza da eta zuen indarra».

Erantzun-salmoa (*Sal* 18, 8-9. 10. 15)





Jaunaren legea bikain, barrena berpizteko,
 Jaunak hots egina sendo, ezikasiak eskolatzeko.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren asegarri,
 Jaunaren aginduak garbi, begien argi. R/.

Jaunaren beldurra garbi, iraungarri betiko,
 Jaunaren erabakiak egia, guztiak orobat betiko.
 Nire ahoko hitz eta bihotzeko gogoetak ‘
 atsegingarri izan bitez zure aurrean,
 Jauna, ene harkaitz eta salbatzailea. R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 12, 12-30) – *utz daiteke [] kako artekoa*

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Gorputza bat izanik ere, atal asko dituen bezala, eta gorputzeko atal guztiak, asko izanik ere, gorputz bat diren bezala, berdin Kristo ere. Gu guztiok —judutar nahiz greziar, menpeko nahiz askatu— Espiritu berberarengan bataiatuak izan gara, gorputz bat bakarra izateko. Eta guztiok Espiritu bakarretik edan dugu.

Gorputza izan ere, ez da atal bakarra, asko baizik. [Oinak esango balu: «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez luke horregatik gorputzarena izatea utziko. Eta belarriak esango balu: «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez luke horregatik gorputzarena izatea utziko.

Gorputz guztia begi balitz, nola entzun? Eta gorputz guztia belarri balitz, nola usaindu?

Horra, bada, Jaungoikoak, Berak nahi bezala ipini ditu atalak gorputzean. Guztiak atal bat-bera balira, non legoke gorputza? Atalak, ordea, asko dira; baina gorputza bat. Begiak ez diezaioke

eskuari esan: «Ez dut zure beharrik». Ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik».

Gehiago oraindik, makalenak diruditen gorputz atalak dira beharrezkoenak; eta geure gorputzean zatarrenak uste ditugunak, itzal handiagoz inguratzen ditugu; eta lotsagarrienak, begirune gehiagoz erabiltzen, berez agurgarri direnek ez bait dute horren beharrik. Eta Jaungoikoak gorputz atalak eratu zituen, apalenei begirune handiagoa emanaz; horrela ez dago alderdikierarik gorputzean; atal guztiak berdin arduratzen bait dira bata bestiaz. Atal batek min duenean, min dute beste atal guztiak harekin; eta atal bat goresia denean, poz dute beste guztiak harekin.]

Zuek, beraz, Kristoren gorputz zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. [Egia esan, Jaungoikoak Elizan apostolu jarri ditu batzuk lehenengo; bigarren profeta, hirugarren irakasle; ondoren mirariak, geroago sendakuntzarako dohainak, elkar laguntzarakoak, aginterakoak, era ezberdinetako hizkuntzen dohainak, eta hauek adieraztekoak. Guztiak apostolu al dira?, guztiak profeta?, guztiak irakasle?, guztiak egiten al dituzte mirariak?, guztiak al daukate sendakuntzarako dohaina?, guztiak mintzo al dira hizkuntzatan?, guztiak adierazten al dute?]

Aleluia (Ik. Lk 4, 18b-19a)



Behartsuei berri ona ematera bidali nau Jaunak,
gatibuei askatasuna hots egitera. R/.

Ebanjelioa (*Lk 1, 1-4; 4, 14-21*)

Homiliarako argibideak

Jesus Nazareteko sinagogara joaten da. Hogeita hamar urteak beteak izango zituen Jesusek. Beraz, larunbatean sinagogan biltzen den jendearen aurrean irakur dezake profeten liburutik eta irakurritako pasartea komentatu, baldin eta sinagogako buruak hala eskatuz gero. Era horrela gertatu da oraingoan. Jesusek Isaias profetaren pasarte hau irakurtzen du: «Jaunaren espiritua nire gainean dago, berak nau bidali gatibuei askatasuna eta behartsuei berri ona adieraztera, itsuei ikusmena hots egitera eta zapalduak askatzera, Jaunak onginahia azalduko duen urtea hots egitera».

Profetaren hitz hauek, Jesusek Galilean estreinatu duen misioaren egitaraua adierazten dute. Zein da Jainkoak bere espirituaz beteta mundura bidali duen bere Seme Mesiasen misioa edo eginkizuna? Hauxe: Jainkoaren maitasun errukitsua, onginahia, harrera ona, barkamena, hitz batean, salbamena... gizon-emakumeoi adierazi eta egiaztatzea. Eta hau dena nola burutuko du Jesusek? Ba Isaiasek esandako hitzak bere bizitzara eramanez: gaixoak sendatuz, gizon-emakumeen bekatuak barkatuz, zapalduak altxatuz, nahigabetuak eta etsipendunak barrutik poztuz, bere inguruan bizi-poza eta esperantza zabalduz, Jainkoaren Erregetzaren Berri ona behartsuei hots eginez; hitz batean, berea eta gurea den Aita Jainkoak gizon-emakumeok garen bezalakoxeak onartzen gaituela oihukatuz. Bai, Jainkoak Jesusengan ongi hartu gaitu. Horra hor Jesusek hots egin digun berri ona Nazareteko sinagogan ez ezik, baita bere bizitza guztian zehar ere, bereziki gurutzean, Aitari eginiko bere burua ematearen bidez, otoitz honetan agertzen denez: «hauengatik ematen dizut erabat neure burua, hauek ere egiazen bidez zeuretzat har ditzazun» (Jn 17,19). Jesusengatik Jainkoak hartuak gara. Eta Jesusek berri on honen gaurkotasuna azpimarratu nahi izan du

Nazaretoko sinagogan; bi mila urte pasatu ondoren ere, Aitaren eta Jesusen harrerak ez du iraungitze datarik.

«Jesusekin Betleemera: hau bai berri ona!» dio gaur ospatzen dugun Haur misiolarien Egunak. Betleemgo gertakarian ikusi genuen nola datorren Jainkoa gugana: txiki, ezerez, umil, baztertu, zapaldu, behartsu... Haurrek Betleemgo gertakarian sentitzen dute naturalen Jainkoaren gertutasuna, bai guk ere! Izan gaitezen gu ere gertuko, harrera oneko, Berri On pozgarri, Haur Misiolarien ekimena eskolak, osasun arreta, kristau heziketaren... premia duten hainbeste haurrentzat Berri On den bezala. Bai Jainkoaren Hitzak bai Haur Misiolarien Egunak besteak onartzera, ongi hartzera gonbidatzen gaitu, batez ere behar duenari eskua luzatzera: etorkinari, askatasunik ez duenari, itsuari...

Jainkoaren Hitza entzuteak eta gorputzaren irudiaz san Paulok adierazi digun fededunon arteko batasunak lagunduko digu Jesus Salbatzailearen mezu askatzailea aurkitzen eta geureganatzen. Eta honek egingo gaitu gai Berri On izateko besteentzat, Jesu Kristo denentzat izan zen eta den bezala. Hala izan dadila.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok, Jainko Aita errukierrari, bere eskuetan baikalde, eta eska diezaiogun uste onez entzun ditzala bere herriaren otoitzak:

- Jainkoaren Elizaren alde: egunez egun lehia handiagoaz bila dezan bere Jaunaren aurpegia eta bere kide guztiak saia daitezen bihotz berriz bizitzen.
- Nazio guztietako arduradunen alde: gogoz eta kemenez lan egin dezaten guztiontzat bakea eta ongizatea bilatuz, denongan bakea eta justizia nagusitu daitezen.

—Lurralde guztietako haurren alde: Jesusen berri ona aurkitzeko zoria izan dezaten, aurkituta leial bizi daitezen, eta leial izanik Haren lagun eta testigu ager daitezen guztiontzat.

—Hemen bilduak gauden guztion alde: Jainkoak fedean sendo irauteko eta elkarren maitasunean hazteko grazia eman diezagun.

Zure Semea bidali duzu, Jauna, behartsuei Berri Ona iragartzera, gatibuei askatasuna eta itxuei ikusmena ematera; entzun gure otoitzak eta egizu Zure hitza entzun dadila mundu osoan eta gu, hitz horrek bizkorturik, salbamenaren hots egile izan gaitzela gizakien artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Diru-bilketa egitean

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean mundu osoko haur misiolarien eguna dela gogoratzuz.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
bizi berriaren grazia eman diguzu;
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

(Edota: «Herrien ebanjelizatzerako, A», Meza Liburuan 721 or.)

**Erospeneko sakramentuaz janaritu gaituzu, Jauna;
betiko salbamenaren janari honek
gorde gaitzala beti egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**